

Herri Aldizkaria

otomotz

1997ko ekaina / 25. alea

BILBO
BERBETAN

Zintzo-Mintzo
URRETXU

Argazkia: Euge Ambe



Zintzo Mintzoren ekintzen
berri Araba Euskarazen
ikusgai



Alemaniarrek Gerra Zibilean, Gernika bonbardeatu zuteneko 50. urteurrena bete da aurten. Garai hartan Euskal Herriko gazte asko gudan ibili behar izan zuten. Argazkian, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Santa Lutziko Loiola batailoko gudariek, 1936 urtean, Gernikako Junta Etxean ateratako argazkian.

Goian, ezkerretik eskubira: **Esteban Oiarzabal, Berroetakoa; Damian Osinalde, Santa Luziakoa; Eulogio Idigoras, Olazabarrenekoa; Segundo Olazkarreta, Agerraundikoa; Paulo Oiarzabal, Berroetakoa; Joxe Idigoras, Olazabarrenekoa eta Benito Irastorza, Iriartekoa.**

Behean ezkerretik eskubira: **Luis Leturia, Aretxabaletakoa; Patxi Madina, Olazabarrenekoa; Pedro Telleria, Aranekoa; Bittor Aranzadi, Alasaingoa; Simon Lasa, Gabiriako Zanteikoa; Juan Oiarzabal, Agirrebengokoa.**

Eserita dagoena, **Antonio Gorrotxategi, Aretxabaletakoa.**



Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren** diru laguntza jaso du



Aldizkari honek **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduaren** diru laguntza jaso du



Aldizkari honek **Urretxuko udalaren** diru laguntza jaso du



Aldizkari honek **Zumarragako udalaren** diru laguntza jaso du

Jaiak

*Udarako oporrak
iritsi zaizkigu
ta poztasuna ere
guri eman digu
nahiz ta bukaeran
sartuta gauden gu
Zumarragako festak
hementxe ditugu*

*Zuri aholku ematen
hasteko naukazu
baina lehenengo neri
kasu egidazu
parrandaren bat ere
egin dezakezu
lagunartean alai
igaro ezazu*

Doinua: Xarmangarria zera



USUE FERNANDEZ LASA

OTAMOTZ hilero doan etxean jaso nahi nuke, edo ondorengo lagunari oparitu nahi nioke

IZENA:

ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA: **K.P.:**

Bidali datuak Zintzo Mintzora, Labeaga 12, Urretxu edo deitu 72 57 75 telefono zenbakira.



Argazkia:Euge Ilunbe

Zintzo-Mintzok urtean zehar egiten dituen ekintzei buruzko informazioa, kartelak, argazkiak eta Otamotz aldizkariako ale bat ere, ikusgai egon ziren Araba Euskarazen, Oionen. Antolatzaileek Euskal Herriko euskara talde desberdinen informazioa jaso zuten eta egurrezko paneletan jarri.

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaileen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel:725775 **Koordinatzailea:**Amaia Pildain. **Erredakzio kontseilua:** Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:**Sebas Iturrioz. **Informatikaria:**Jonmikel Insausti. **Laguntzaileak:** Bertso eskola, Usue Fernandez. **Inprimategia:**GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 Tirada:1.300 ale. **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain har-tzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

MAIRI EMAKUME TALDEA



Maiatzaren 28an Mairi Emakume Taldeko zenbait partaide Orreagara, Donibane Garazira eta Senpereko lakura joan ziren ibilaldi bat egitera. Giro ezin hobean pasa zuten eguna eta bidaiara joan ziren emakumeek diotenez, datorren urtean ere honelako egun pasa bat errepikatzeko prest daude. Partaideek behin eta berriz goraipatu eta eskertu dute antolatzaileen lan bikaina.

Argazkia: Aintzane Arizmendiarrreta

GOIARGI ABESBATZA



Goiargi abesbatzak bi emanaldi izan zituen Toledon ekainaren 7an. Toledoko Katedralean mezetan abestu ondoren, kontzertua ere eskaini zuten. Herritarren bi emanaldiak oso arrakastatsuak izan ziren. Abesbatzako partaideek asko eskertu dute Toledon izandako harrera ezin hobea.

Argazkia: Mila Areitio



URRETXUKO LURRA DANTZA TALDEA

Argazkia: Renedo

Urretxuko Lurra dantza taldeak Dantzari Txiki eguna antolatu zuen hilaren 22an eta bide batez, taldeko txistularia zen Igor Elgarresta omendu zuten. Hilaren 11an Portugalera eta Galizira doaz dantza egitera. 10 egunetako bidaia egingo dute herritarrek.



Labeaga

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 ☎ 72 41 61

LIBURUDENDA



GANBARA

Labeaga, 52
☎ eta faxa: 72 50 45

San Juan bezpera



Aurten ere urtero bezala, San Juan bezpera egunean Urretxuko Gernikako Arbola enparantzan jendetza ikaragarria bildu zen.

Suaren inguruan egiten den ekitaldia Ordiziako dantza taldeak egiten zuen ekitaldian oinarrituta dago, eta garaiko Irrintzi-La Salle taldeak ekarri zuen bertatik. 1970-1971 urtean hasi zen ekintza honekin eta egun Urretxun ohikoa egin den ekitaldian txistulariek, txalapartariak, bertsolariek, dultzainariak, dantzariak, trikitilariak eta makina bat herritarrek, haur, gazte eta helduek parte hartzen dute. Ekitaldia honako hau da:

Haseran sorginak su ingurura joan eta hau esaten dute:

Eguzkia hazia eta bizia

**Eguzkia indarra eta garra
Eguzkia gure arnasa
Eguzkia Ama Andrea indarrean
zaudena ez gorde zure indarra,
beharra baitugu bizia**

Gero herria inguratuko da **Bal-kar-**
los dantzatzuz. Hau esaten du:

**Sarna kanpora, onak barnera,
artoa ta ogia honera
Sugeak kanpora
Zakurrak kanpora
Piztiak kanpora
Ezkabia kanpora
SORGINAK KANPORA!!!**

San Juan abestia ondoren:
**San Juan San Juan heldu da
Sorgin begia galdu da
galdua bada galdu bedi
sekulan agertu ez baledi!**

**San Juan San Juan nik ez daukat
besterik gogoan:
Arraultza bi kolkoan, beste bi altzoan
Lapurrak eta sorginak erre erre
artoak eta gariak gorde gorde**

Guztiok eseri eta goxo-goxo Murumendiko Mariren ipuin zaharra entzuten dugu:

Murumendiko baserri batean senar emazteak bizi omen ziren, beren bost seme alabekin.

Gizona kristau ona zen, baina andrea oso gaiztoa, eta bere umeak inola ere bataiatzerik nahi ez zuena.

Halako gau batean gizonak bere seme alabak gurdian hartu eta abiatu zen bataiatzera eramateko asmoz, baina andrea esnatu eta gertatzen zenez jabetu zenean, haien atzetik abiatu zen bataiatzen ez uzteko

asmoz. Gizonak an-drea ikusi zuenean, guriaren kurteskilari lotuta jarri eta aurrera jarraitu zuen.

Halako batean andreak su ta gar hartu eta lainoen artetik gora izkutatu omen zen hau ohiukatuz: **Orain nere seme alabak zerurako eta ni Mururako!**

Hori gertatu geroztik, zenbait jende ikusi omen du Aitzkorriko leize zuloen inguruan, eguzkitan bere ileak urrezko orrazi batekin orrazten.

Ondoren berriro abesten da:

**Murumendiko larrian
aker bat dago erdian
atso errenak dabiltz
bere aurrean dantzan
goazen goazen eurari
laguntzen
a-ju-ju egiten**

Herria, sorginak elkar-tzen dira eta bertsoak, txalaparta, soinua jotzen da dantza egiten den bi-tarte-an. Suari begira **San Juan Dantza** dantzatzen da hau abesten den bitartean:

**Agur egun zoragarria
poztu dezu herri guztia
Urretxuarrei sabeletik
sortzen zaien gutizia
Agur egin zoragarria
poztu dezu herri guztia!!**

Ekitaldiari amaiera emateko, **HERRI DANTZA** dantzatzen dute sorginek eta herriak suaren inguruan. Gero fandangoa, arin-arina eta biribilketa dantzatzen da. Ondoren erromeriak jarraitzen du hankak eta besoak nekatu arte.




SAN JUANAK



SAN JUAN




Zer egingo duzu aurtengo udan?



Javier Grajeras

Bizikletan ibiliko naiz eta beranduxeago, Galiziako Negreira herrira joateko asmoa dut.




Unai Usabiaga

Ez dut ezer berezirik egingo. Jolastu, jolastu eta lo. Oraingoz ez dut inora joateko asmorik.



Paulina Sanchez

Oporretara joateko dirurik ez dudanez, hemen geratuko naiz biloba zaintzen. Egunen batean handartzara bueltatxoren bat emango dugu.



Andoni Ayllon

Extremadurara joango naiz. Ondoren, familia bisitatzera Granadara. Eta azterketen emaitzen arabera ikasi ere egin beharko dut.



Xabier Torres

Dantza taldearekin Portugal eta Pontevedrara joango naiz. Bueltatzean, herria zaintzen geratuko naiz, inguruetako festak aprobe-txatuz.



Andoni Berriotxoa

Urtero bezala Jakara joango naiz. Han lagunak ditut eta beraiekin batera, igerilekura joango naiz.



BAPRI

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75

TEJANO



Azken moda
berria!

Ipeñarrieta, 4 Urretxu





Santa Isabelak 97

Ekainaren 29an hasi ziren Snata Isabelak, haurren eguna ospatu zen, herri agintari berriak herrian eta Renfeko trenbidea estaltzen duen plaza eta Itziar, Oteizaren eskultura inauguratu ziren. Arratsaldean haurren danborrada izan zen. Asteartean, berriz, hel-duen danborrada. Jaietako egun handian, Santa Isabel egunean, eguraldiak ez zuen lagundu eta arratsalde erdirarte euria egin zuen. Hala ere, jende ugari bildu zen goiz partean Antiguako meza entzun eta ezpata dantzariak gertutik ikusteko. Herri bazkaria tokiz aldatu behar izan zen, Euskadi plazako arkupean egin zen. Bazkal ondoren jende ugari igo zen berriro ere Antiguara jetsiera egiteko. Iluntzean eta gauean oso giro ona izan zen Zumarragan.

Baserritarren egunean idi probak, eta aizkolariak izan ziren ikusgai Euskadi enparantzaren eta toki berean, haurrentzako jolas parkea egon zen, ederki asko ibili ziren hauek batean eta bestean. Ostiralean, asteburuarekin batera, kanpotar asko inguratu zen Zumarragara, jende asko eta giro ona kalean. Larunbatean koadrila eguna, goizean jokuak, bazkaria eta iluntzean giza katea, 700 lagun pasatxo bildu zen euskararen alde. Gero afaria eta gau erdian larrain dantzaren ondoren, parranda. Igandean jubilatuen bazkaria, toka txapelketa eta dantza txapelketa. Egutero, formal formal herri eta herritarrak alaituz, txistulariak, trikitilariak, musika banda, dantzariak aritu izan dira eta gauero musika taldeak.









Urretxu Zumarragako II Herri Olinpiada jokoan

Uztailaren 7tik 18ra bitartean herriko 13 talde futbitoan, saskibaloian, pelotan, palan, igerian, korrikan eta bizikletan arituko dira norgehiagokan. Izan ere data hoietan Euskal Jaia Taldeak, Gaztelekuak eta Zintzo Mintzok antolatutako II. Herri Olinpiada jokatu da. Olinpiadako txapeldunek eta sail bakoitzeko talde irabazleek garaikurra eta afari mundiala irabaziko dute. Pello & Company taldea, iazko garaipena errepikatzeko saiatuko dira baino beste taldeek ez diete errez utziko.



iazko sari banaketa

Saskibaloiko 3x3 Urretxu saria



Ekainaren 27 eta 28an saskibaloiko 3x3 lehenengo Urretxu saria jokatu zen Gernikako Arbola plazan eta Aldiri polikiroldegian. 15 eta 45 urte bitarteko lau jokalariko 24 taldek hartu zuten parte txapelketa honetan, guztira, 96 jokalarik.

Goierri Kirol Elkarteko antolatzaileen esanetan ezin hobeto eta oso giro onean burutu den txapelketara Urretxu eta Zumarragako saskibaloizaleek gain, Beasain, Antzuola, Legazpi, Deba eta Ordiziakoak etorri ziren. Etorritako jokalarigehienak federatu gabeak izan ziren nahiz eta federatutakorik ere izan zen.

Aipatu gainera, garai batean Goierri K.E.ko saskibaloitaldean, Ordiziako saskibaloitaldean eta Andraitz saskibaloitaldean jokalaria izandako zenbaitek hartu zuela parte sariketa honetan.

Sailkapenari dagokionez, lehenengo saria, Beasaindarrek eta Urretxuarrek osatutako BKL POWER 1 taldeak eskuratu zuen, bigarren postuan RUPELON taldeko legazpiarrak geratu ziren, hirugarrenak, Zumarragako ANTI SPACE GIRLS taldekoak izan ziren eta laugarrenak, LA PENYA taldekoak.

Euskadiko adin gutxikoen berreziketarako zentro bakarra Zumarragan

Ekainaren bukaeran Zumarragako San Kristobal bidean zegoen Iburreta Beheko baserria bota eta Euskal Autonomi Elkarteke lehenengo **adin gutxikoen berreziketarako zentrua** eraikitzeke lanak hasi ziren. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Gizarte Segu-rantza eta Lan Sailak aurrera eramandako egitasmoa da zentruaren eraketa eta bertara, Euskal Autonomi Elkar-teko Epaitegiaren erabakiz etorriko dira 13 eta 18 urte bitarteko gazteak.

Helburu nagusia, gazteen bergizarteratzea da. Gatazkatsuak diren adin gutxikoen jarrera liskartsua aldatzen saiatuko dira zentruko langileek. Guztira 40 lagunentzako tokia izango da eta gazteek ezingo dute bertatik irten, gune itxia izango baita. Sortuko diren lanpostu berriak 50 inguru izango dira eta bertan, medikuak, psikologoak, gizarte laguntzaileak, zaindariak, sukaldariak... beharko dira. 3.500 metro karratu inguru lur erosi dira.



Zentroan ikasgelak, tailerrak, polikiroldegia, aisialdirako guneak, gazteak lan egiteko baratzak... eraikiko dira. Gazteak bertatik irtetzerik izango ez dutela kontutan harturik ahalik eta eraikinik erosona eta erakargarriena egiteko

asmoa dago. Aldi berean eraikinak paisaia izango duen eragina ere zainduko da. Lurren erosketaren kostua eta eraikuntza lan guztien kostua Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak ordainduko ditu bere osotasunean.

ITURGINTZA



LUIS ANGEL

Gure erakusketan zain gauzkazu

Deskargarako bidea, z/g ☎ eta faxa 725459

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

☎ 72 04 23

KUDEAKETA

Adin Gutxikoen berreziketarako zentrua Zumarragan eraikitzeko asmoa aspaldikoa da. Kudeaketa lanak Eusko Jaurlaritzako lehengo Lan Saileko arduradunek hasi zituzten 1991. urtean. 1995eko martxoan oraingo Lan Saileko arduradunak, Ramon Jauregik, bere aurrekoek hasitako lanekin jarraitzeko asmoa zuela adierazi zien Zumarragako udaleko arduradunei. 1996ko urrian zentruaren aurreproiektua aurkeztu zuen Jaurlari-tzak Zumarragako udalean, hilabete horretan Zumarragako Batzarrak aho batez egitasmoa onartu zuen. Herri Batasunako arduradunek, Jaurlari-tzako Gizarte Saileko Zuzendaritzan proiektuari buruzko informazio gehiago eskatzea proposatu zuten eta proiektuaren aldeko botoa zentruaren behin betiko ezaugarriak zehaztera-koan emango zutela adierazi zuten. 1996ko urtarrilan Zumarragako Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen zentroaren eraketa.

LANAK

Adin gutxikoen berreziketarako Zentroa egiteko, Iburreta Behekoa baserria ere bota da. Eraikinaren egoera oso ona ez bazen ere, nahikoa zaharkitua baitzegoen, baserriak harrizko puntu erdiko arkua zuen sarreran, nahiz eta baserria ez zegoen Eusko Jaurlaritzak duen babestu beharreko eraikinetako zerrendetan. Zumarragako alkateak Eusko Jaurlaritzak baserria katalogatu gabe zuela adierazi digu eta ondorioz balore artistikorik ez zuela, beraz, botatzearekin hondamendirik egin ez dela. Errepideari dagokionez, erabat lasaia eta batez ere oinezkoentzat zen pasealekuan, ibilgailuak ugartuko dira, oinezkoen segurtasuna bermatu ahal izateko errepidea konponduko eta zabaldu egingo da. Errepidearen konponketa lanen gastuei Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak egin beharko die aurre.



Adin Gutxikoen Berreziketarako Zentruaren aurkako kritikak irakurri eta ikusi ahal izan ditugu kalean jaietan. *Gazte gartzela* bezala ulertzen dute zentro berri hau Jarraikoek, bertako gazteek ez baitute bertatik irtetzerik izango. Hauen ustetan, gizartearekiko isolamendu honek ezin du inola ere adin gutxikoen berreziketan eta bergizarteratzean lagundu.



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11 URRETXU ☎ 72 25 99



Gazteak itxurazko lokalaren bila

Geroz eta gazte gehiago biltzen da Gaztelekuan. Izan ere, lagunartean egoteko tokia izateaz gain, gazteen gustuko diren ekintza asko antolatzen dira bertan, ikastaroak, kontzertuak, mendi irteerak...

Gazte asanblada ardurtzen da gehienetan ekintzen antolaketaz, koadrila desberdinetako lagunek osatzen dute asanblada hau eta

larunbatero biltzen dira Gaztelekuaren martxaz hitz egiteko. Baina hauek ez dira antolatzaile bakarrik, edozein gazteren proposamenak eta ideiak kontutan hartu eta burutzen baitira. Bistan da bertan egiten den lana, hilean bi musika kontzertu antolatzen dira. Herriko musika talde guztiek jo izan dute Gaztelekuan eta baita kanpotarrek ere, atzerrikoak tartean. Uztailaren

22 eta 23rako drogomenpekotasunari buruzko hitzaldiak antolatu dituzte eta irailean beste herrietako gazte asanbladeko partaideekin biltzeko asmoa dute. Beste herrietako gazteen egoera eta egiten dituzten ekintzak ezagutzea aberasgarria iruditzen zaie bertako gazteei kopiaitzekoak diren ideiak bereganatzeaz gain eta dituzten arazoen aurrean nola jokatu argitzeaz gain,

giza harremanak hobetzen direlako.

Gaztelekua ere baliagarria da herriko gazteen arteko harremana sendotzeko, koadrila desberdinetako gazteak elkar ezagutzen dira bertan eta proiektu baten alde elkarlanean aritzen dira. Asanblada urtero aldatzen da eta ez da arazorik izaten partaide berriak bilatzeko garaian, jende asko baitago lanerako prest.

Duela hilabete hauteskundeak egin ziren, bi gai zeuden erabakitzeke. Bata, tabernaren arduradunen aukeraketa eta bestea, azken urteetako kontua eta gazteentzat behintzat oso garrantzitsua dena, lokal berriaren gaia alegia.

Egungo lokalak eragozpen handiak ditu, txikiegia da. Areto bakarra dago eta aisialdirako tokia, kontzertu eta ikastaroetako tokia eta taberna izateaz gain bilera tokia ere bada. Dena bertan egin beharra dago eta askotan ez dago behar beste isiltasunik edo lasaitasunik. Eraikuntzaren egoerari buruz, berriz, ezer gutxi esateko, bistan da nola dagoen, erabat zaharkitua.

Aspaldikoak dira lokal berriaren kokapenari buruzko Gazteleku eta udaleko arduraduneari arteko solasaldiak. Gazteek ekintza desberdinak antolatzea ahalbidetuko duen lokal handia eskatu dute behin eta berriz. Honegatik eta beraien antolatutako ekintzen zarak, kontzertuen musikak batez ere bizilagunak ez gogaitzeko Urola geltoki zaharreko etxea aproposena iruditu zaie betidanik. Udaleko arduradunek eraikuntza hau Foru Aldundiarena dela aldarrikatu izan dute beti eta ondorioz, ezin daitezela hau erabili. Aukeran, Ederrena pilotalekuko anexoa eskaini die gazteei hasieratik. Gazteen ustetan azken hau lokal txikiegia da, oraingoaren parekoa eta ez lirateke oraingo arazoak konponduko. Asko eztabaibatu ondoren, udala Foru Aldundiarekin akordio batera heldu omen da eta arazo

ekonomikoak badaude ere, geltokia zaharberritu egingo da bertan gazteleku berria kokatzeko. Oraingo gaztelekua abenduan botako denez, geltokiko erainkina zaharberritzeko lanak lehen bait lehen hasi beharko dira. Badirudi geltokiko konponketa lanak urrian hasiko direla. Udalak pilotalekuko anexoa egokituko duela agindu die gazteei, oraingo gaztelekua bota eta geltokia konpondu bitartean baina

hauek ez dute frontoira pasa nahi, arazo ekonomikoak izanda ulerkaitza baita lehenengo frontoia eta ondoren geltokia egokitu beharra izatea. Nahiago dute hilabete gutxi batzutan gaztelekurik gabe egotea.

Arazo ekonomikoak egon daitezke ulertuz, gazteak dirua lortzeko ekintzak antolatzeke prest daude, honela kontzertu erraldoiren bat antolatzeke gai direla adierazi dute eta ate-

ratako dirua lokal berria konpontzeko erabiliko litza-kela. Bestalde auzolanean konponketa lanak egiteko taldeak osatzeko moduan ere badaudela diote. Langa-bezian dauden lagun askorentzat mesedegarria izango litzateke gainera zer egin izatea, eta konponketa lanak egiteko beharrezkoak diren ikasketan egindako gazteak ere badaudenez, hauek proiektua egiteko moduan daude.



Plastiko eta metala biltzeko kontenedore berria izango da aurki

Sasieta Mankomunitateak, obretako hondakinak, bota beharreko altzariak eta etxetresna elektrikoak eta bestelako traste zaharrak berreskuratzeko biltegia ireki zuen iazko maiatzaren 27an. Deskarga bidean zabaldu zen Hondakinak Berreskuratzeko Biltegia, Urretxuko Garbigunea ireki zenetik, aurtengo maiatzaren bukaera arte erabiltzaileen kopurua hilabetez hilabete handitu da.

Urtebetea, 4.295 lagunek erabili dute Hondakin Biltegia, zaborrak bertara botatzeko. Erabiltzaile hauetatik 2.088 partikularrak izan dira eta 2.217 profesionalak.

Erabiltzaileen jatorriari dagokionez, Urretxuko 1.148 lagunek erabili dute Garbiguneko zerbitzua, Zumarragatik 1.559 lagun, Legazpitik 1.463 eta beste herrietatik 125 lagun joan dira bertara.

Aurtengo maiatzaren 14an izan du erabiltzaile gehien zentruak, guztira 31 lagun inguratu baitziren bertara.

Lehen urtean, 765 tona inguru bildu da bertan, 764.966 kg hain zuzen ere. Hauetatik 70.726 kg birziklatu dira eta Sasieta Mankomunitatera, 694.240kg era-



Urretxuko Hondakin Biltegia

man dira. Hondakin hauek Urretxuko Garbigunea zabaldu aurretik mendi zulotara eta errepideetako bazterretara botatzen ziren.

Urola Garaiko biztanlegoa oso kontzientziatua dago ingurugiroaren zainketa-ekin, eta laster hirugarren kontenedorea jarriko da. Kontenedore honetan metalez-

ko eta plastikozko ontziak eta tetrabrikak botako dira. Laranja kolorekoa izango da kontenedorea eta bolumen handiko zaborrak ez dira poltsetan bota behar izango.

Honela, ingurugiroa zainduko da, berrerabilpena egingo delako, kontsumoa gutxituko delako eta berziklatuko delako.



ARTVRO

Eskolan edota etxean
egin behar dituzun
eskulantarako behar
duzun guztia

Ipeñarrieta,4 ☎ 72 14 20 URRETXU

ELIZ - KALE

LAUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 52

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurritan

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Kahunas

O'Neill-Astore-Liberto-H.W.-Libero

Nekolalde,5 ☎ 72 56 89

A

Secundino Esnaola,5
☎ 72 42 07
ZUMARRAGA

deportes
APALATEGUI

Zabaleta, 3
☎ 28 77 87
DONOSTIA

Geltokietako jaiak

✓ Uztailak 11:

19:00:Txupinazoa izango da.

Ondoren, Aldiri K.E. erraldoien konparsa, **Erlantz hankapaloak**, eta **buruhandiak** eta **dultzainariak** izango dira.

Ordu berean, **PARTXIS** txapelketa.

19:30: **Zumarragako trikitixa** eta **Elorza anaiek** girotutako **txi-kiteoa**.

23:30:**The Hot Dogs** eta **The Pendu** herriko taldeen kontzertua. **Aldapa txarangak** ere kaleak girotuko ditu.

✓ Uztailak 12:

11:00:**Haur jolasak**. Txirinduak eramatea komeni da.

15:00-16:00: **Derrigorrezko loku-luska** berriro ere indartzeko.

16:30:**Mus txapelketarako** izena emateko epea itxiko da. Izen ematea auzoko tabernetan egin ahal izango da.

18:00:Herriko **dantza taldeen** ekitaldia.

20:00:**Geltokietako bigarren krossa**.

22:30:Antzerki tailerreko partaideen **antzerki emanaldia**.

23:30:**Orkestra Diamanterekin** dantza saioa. **Aldapa txaranga** ere arituko da.

✓ Uztailak 13:

7:30:**Otordua** prestatuko da.

9:30:**Urretxu** eta **Zumarragako txistularien** kalejira.

12:00:**Herri meza** izango da, auzoan hildakoen alde. **Irimo Azpi abesbatzak** abestuko du bertan.

12:30:**Herri Kirolak**, Domingo Mendiaraz plazan. Aizkolariak izango dira lehian.

12:30:**Herriko dantza taldeen** saioa.

14:00:**Asto lasterketarako hesi banaketa**.

14:30:**Herri bazkaria**, txartelak tabernetan daude salgai.

18:00:**Trikitixa** egongo da.

18:30:**Asto lasterketa**.

20:30-21:30:**TRABUKO** musika taldearekin dantza saioa.

23:00:Berriro ere **TRABUKO** taldea.


Askagintza-Gazteleku

✓ Uztailak 22, 23: **Gazteria** eta **drogomenpekotasunari buruzko hitzaldiak**, arratsaldeko 7etatik 9etara Gaztelekuan. Hizlariak **Izadia giza ikerketako** taldeak.



● Bazterrik bazter, kanta ezazu ozen, Ez izan alper, esanez,
ZORIONAK ANDER!!!

● Amonatxo jantzita postasunez betea txalopintxaloka hor dugu
Nerea, zure lehengusu Jone eta Eiderren partez
Zorionak NEREA!!!



● Urtebetetze eguna aitzaki zuregana gatoz alaiki esatera
Zorionak IÑAKI!!!

Zinea

✓ Uztailak 18: **Angel Merino** eta **Pepe Requejok** zuzendutako **Amador** laburmetraiaren estreinaldia, Pagoeta Antzokian, arratsaldeko 8etan, sarrera doan izango da.

Uztailak 16-20: Aldaketa erakusgelan **filmazioko material grafikoa**ren erakusketa.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

EDURNE


Punta Puntako moda !

Aukerarik hoberena gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 Zumarraga ☎ 72 14 17

Lagun Arok txano bat oparitzen dizu

Honelako txartel bat*
Zumarragako **LAGUN ARO**
bulegora eramaten baduzu,
zure automobilaren
asegururako aurrekontuarekin
batera, **txano ederra** emango
dizugu oparitzat



AUTOMOBILA

Marka eta modeloa

Daukan hobaria

Adina

* txartela banatu egingo da.



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUIAK

Kalebarren, 1. Tel: 72 50 22
ZUMARRAGA

